

INTERNAZIONALIZAZIO PROGRAMA

PRODUKTU BERRIA NAZIOARTEAN MERKATURATZEKO LAGUNTZA

HELBURUA: Gipuzkoako enpresek garatutako produktu berriak nazioartean merkaturatzeko ekintzak sustatzea eta bultzatzea.

ONURADUNAK:

Enpresa eskatzaileak duela gutxi garatutako produktu bat duela egiaztatu beharko du, eta nazioartean merkaturatzeko ekintza diruz lagundu beharreko proiektuaren xedea izango da.

- Produktuak ez dira azken lau ekitaldietatik gorako epean garatutakoak izango.
- Enpresa ertainetan, nazioartean merkaturatu beharreko produktuak berritzailea izan beharko du, eta, horretarako, honako baldintza hauetako bat betetzen dela egiaztatu beharko da:
 - a) Eusko Jaurlaritzaren edo beste administrazio publiko batzuen diru laguntza onuradun izana, I+G+Brekin lotutako edo produktu berriak garatze ko diru laguntza lerroren batean. Laguntza horien ebazpenetan argi azalduko da laguntza nazioartean merkaturatu nahi den enpresaren produktu berri batekin lotuta dagoela.
 - b) Nazioartean merkaturatu nahi den produktu berriaren asmaketa patente baten eskatzaile edo titular dela jasota egotea.
- Enpresa txikiei dagokienez, produktuaren berritasuna egiaztatzeke, nahikoa izango da katalogo batean sartzea eta inguruabar hori jasotzea.

PROIEKTUEN EZAUGARRIAK:

Diruz lagundu ahal izango dira kanpoan kontratatutako lanak eta zerbitzuak, betiere produktu berria kanpoan merkaturatzera bideratutako ekintzetan; hauek dira diruz lagundu daitezkeen jarduketak:

- Internazionalizazio arloko aholkularitza, kontsultoretza eta prestakuntza gastuak.
- Marketineko eta merkaturatzeko ekintza garrantzitsuak: zabalkundea, marketina edo sustapena egitea, edo garrantzizko azoka, bil tzar edo ekitaldietan aurkeztea barne dutenak, edo antzeko beste ekintza batzuk.

Aurreko puntuan aipatzen diren marketineko eta merkaturatzeko ekintzekin batera doazenean, kontuan hartu ahal izango dira:

- Patente eskaerak, aurreko azterketa eta aholkularitza barne. Marka erregistratzea, eta izen komertzialak. Hori guztia xede diren herrialdeetara eta merkaturatu nahi den produktura orientatuta.

Programaren urteko deialdian, aurreko paragrafoan adierazitako jarduketa eta gastuak diru laguntzaren xedetzat hartu ahal izateko, alderdi hauek zehaztu beharko dira: xede diren herrialdeak, gehienez ere zenbat herrialdetan merkaturatuko den produktua, eta bidaia-poltsen gehieneko kopurua.

LAGUNTZEN ZENBATEKOA:

Diru laguntzaren gehieneko portzentajea diruz lagundu daitezkeen gastuen % 35 izango da.

Enpresak 14.4 oinarri orokorrean aurreikusitako kontu auditatua aurkezten badu, justifikatzeko modu gisa, diruz lagunduko da gastuaren % 100, gehienez ere 3.000 euro.

Entitate bakoitzeko 30.000 euroko diru laguntza eman daiteke gehienez ere.

ESKAERAK AURKEZTEKO EPEA ETA TOKIA:

Eskaera orria eta hari erantsitako agiriak bide elektroniko, informatiko edo telematiko aurkeztea lehenesten da: Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan (<http://www.gfaegoitza.eus>) sartu eta diru laguntzaren atarira jota.

Eskaerak aurkezteko epea 2020ko martxoaren 3an hasiko da; eta **2020ko apirilaren 3an** bukatuko da, eguerdiko 12:00etan.